

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Kalicolak bezeroekiko harreman hurbil, informal eta parte-hartzailea sustatuko du, markaren izaera herrikoia eta jai-girokoa islatuz. Harreman nagusia sare sozialen bidez eraikiko da, eduki dinamiko, umoretsu eta gazteengana zuzenduen bitartez, komunitate aktibo bat sortzeko helburuarekin. Horrez gain, taberna, txosna eta jaialdietan presentzia izateak aurrez aurreko harremana ahalbidetuko du, bezeroen iritziak zuzenean jasoz eta esperientzia positiboak sortuz. Banatzaile eta ostalariekin harreman profesional eta iraunkorrak mantenduko dira, konfiantzan eta hornidura jarraituan oinarrituta, epe luzeko lankidetzak sendotzeko.